

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gaur egungo gizartean, denboraren urritasunak eta eguneroko estresak bidaiak antolatzea zailtzen dute. Pandemiak bizitzaren laburtasunaz jabetzea eragin du, eta horrek bidaia esperientzien garrantzia azpimarratu du. Aldi berean, Internet bidez helmuga exotikoei buruzko publizitate ugaria ikus daiteke, bidaien eskaria nabarmen handituz.

Gure negozio-eredu berritzaileak, banku eta bidaia-agentziaren arteko hibrido gisa, irtenbide eroso eta praktikoa eskaintzen du. Bezeroek hileroko diru-kopuru jakin bat aurreztuko dute, guk diru horrekin bidaia pertsonalizatu eta kalitate handikoa antolatuko diegu. Horrela, finantza-karga handiak saihestu eta aurrezkiak modu progresiboan pilatzen dira. Hortaz proiektuak bi arlo uztartzen ditu:



- **Banku birtuala**, fidagarritasuna eta espezializazioa bermatuz, bezeroen aurrezkiak modu seguruan kudeatzeko.
- **Bidaia-agentzia pertsonalizatua**, bidaiak bezero bakoitzaren beharren arabera antolatzeko.

Konbinazio honek esperientzia integrala eskaintzen du, denbora aurreztuz eta eraginkortasuna maximizatuz. Gainera, sistemak bezeroak modu jasangarri eta ordenatuan aurreztera bultzatzen du. Helburua ez da soilik bidaia bat eskaintzea, baizik eta esperientzia integrala eta ahaztezina sortzea. Gure teknologia-plataformak aukera ematen du aurrezkien jarraipena egiteko eta bidaiaren xehetasun guztiak erraz kontsultatzeko. Era berean, sari-sistemak eta promozio bereziak eskainiko dira bezeroaren fidelizazioa eta gogobetetasuna sustatzeko.

Negozio-eredu honen berezitasunak lehiatik bereizten dituenak ondorengoak dira:

1. **Berrikuntza integratua:** banku birtuala eta bidaia-agentzia zerbitzu bakar batean uztartzea, merkatuan ia ikusezina den proposamena.
2. **Aurrezki progresiboa eta erosoak:** Finantza-kargak arinduz, bidaia eskuragarriago bihurtzen du jende gehiagorentzat.
3. **Pertsonalizazioa eta malgutasuna:** Esperientzia estandarizatuak saihestuz, helmuga eta jarduerak bezeroen lehentasunetara egokitzen dira.
4. **Digitalizazioa eta irisgarritasuna:** Plataforma teknologiko erraza eta intuitiboa, aurrezkien eta bidaiaren xehetasunen jarraipena egiteko.
5. **Fidagarritasuna eta kalitatea:** Gardentasuna eta zerbitzu bikaina gure printzipio nagusiak dira, bezero bakoitzarekin konfiantzazko harremanak sortuz.

Hitz gutxitan, gure negozioa berritzailea eta praktikoa da, eta merkatuan nagusitasuna lortzeko aukera handiak eskaintzen ditu. **Efizientzia**, **jasangarritasuna** eta **pertsonalizazioa** uztartuz, ez da soilik bidaia bat erostea, baizik eta esperientzia ahaztezinak modu eroso eta jasangarrian sortzea.